



ZERBITZUA - ZERGA BETEBEHARRAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak edo haren foru-erakunde autonomoek, eta, oro har, administrazio publikoek osorik edo zati batean kudeatzen dituzten diru-laguntzak eskatzen dituztenek zerga-betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko balio du, hori guztia otsailaren 5eko 143/2007 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera, diru-laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak betetzeari buruzko zerga-informazioa ematea eta horiek eskatzeko eta emateko prozedura onartzen duena.

Emaitza positiboa bada, datuen titularrak zerga-betebeharrak betetzen dituela esan nahi du, aipatutako foru aginduan araututako moduan. Egiaztatu beharreko zerga-betebehar guztiei dagokienez positiboa ez bada, betetzen ez direnak zehaztuko dira.

Eskatzailearen daturik ez badago, hala adieraziko da emandako agirian, eta, hala badagokio, Gipuzkoan helbideratze-data adieraziko da, edo helbideratzearen akreditaziorik eza.

Ematen den informazioak 6 hilabeteko balioa du ematen denetik, aplikatzekoa den araudian ezarritako ondorioetarako.

Balitzko erantzun sinkronoak eta asinkronoak:

Erantzun sinkronoak

A) E (Intzidentziak daude)

MotivosError eremuan itzul daitezkeen arrazoiak:

1. IFZ eta izena ez datoz bat

2. IFZ okerra

3. IFZ ez dago jasota

4. Ez dago eragiketarik. Ez dago daturik. Ez dago egiaztatuta helbideratzea Gipuzkoan egin denik.

5. ee/hh/uuuu alta. Ez dago eragiketarik. Ez dago daturik.

B) S (Betetzea) -> Bai betetzen du

Zergadunak zerga-betebeharrak betetzen ditu

C) NR (ez dago erantzunik) -> Kasu asinkronoak.

Erantzun asinkronoak:

A) E (Intzidentziak daude). Sinkronoko arrazoi berberak, c) izan ezik

B) S (Betetzea)

C) N (Ez du betetzen) – Zergadunak ez ditu bere zerga-betebeharrak betetzen

NISAE plataformatik jasotzen den emaitzaren adibidea

Kontsultaren datuak					
Itzulera					
Traza					
Trazaren IDa:	x53jnNISAE00000000000000000000000573820210422114510992T0	Eskaeraren IDa:	NISAE0000000000000000000000005738	Ziurtagiriaren data:	2021-04-22T11:45:11.747+02:00
Kontsultaren datuak					
Izapide mota:	SUBVENCIONES	Lurraldea:	DFG-Gipuzkoa		
Emaitzaren egoera					
Emaitza:	S	Deskribapena:	El NIF 72412165T está al corriente de pago.		